

“Babesik gabe” zinema-zikloa aurkezten du Montehermoso kulturuneak, CEAR Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordearekin batera

Urtarrilaren 10etik 31ra bitartean izango dira saioak, astearteetan.

Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzuaren menpeko Montehermoso kulturuneak eta Garapenean Laguntzeko Zerbitzuak egin zuten “Giza eskubideak eta sorkuntza artistikoa” deialdi publikoan hautatu zen “Babesik gabe” proiektuaren barruan, zinema-ziklo bat aurkezten du Montehermoso kulturuneak, CEAR Errefuxiatuei Laguntzeko Batzordearekin batera.

Sarrera doan izango da, lekuak bete arte, eta proiekzio guztiak jatorrizko bertsioan izango dira, azpitituluekin. 14 urtetik gorakoei zuzenduta daude.

CEAR-Euskadi batzordeak hautatutako lau film eskainiko dira zikloan. Saio bakoitzaren bukaeran, solasaldia izango da, errefuxiatuen egungo egoeraren inguruan.

Hauek izango dira datak eta filmak:

- **urtarrilaren 10ean: *La vida secreta de las palabras*, Isabel Coixet. Spainia (2005). 120'.** Itsasoaren erdian, petrolio-plataforma bat dago. Gizezkoek baino ez dute lan egiten bertan, harik eta istripu misteriotsu bat gertatzen den arte. Emakume bakarti eta isil bat (Sarah Polley) eramango dute bertara, aldi batez itsu geratu den gizon bat (Tim Robbins) zaintzera. Intimitate berezi bat joango da sortuz bien artean, sekretuz, egiaz, umorez eta saminez betetako lotura bat. Bat bera ere ez da kalterik gabe aterako hartatik. Iraganaren pisuaren inguruko film bat, giza harremanen eta pertsonek indarkeria gainditzeko duten gaitasunaren ingurukoa.
- **urtarrilaren 17an: *In this World*, Michael Winterbottom. Erresuma Batua (2002). 88'.** Peshawarreko errefuxiatu-eremu batean bizi diren bi gazte afganiarrek, Enayat eta Jamalek, Britainia Handira bizitzera joatea amesten dute. Baina, Londreserako bidean jartzen direlarik, zaitasun ugari aurkitu dute bidean hara iritsi aurretik, Iran, Turkia, Italia eta Frantzia gurutzatu beharko baitituzte.
- **urtarrilaren 14an: *Frozen River*, Courtney Hunt. Estatu Batuak (2008). 97'.** Ray Eddy bere ametsetako etxea erostekotan delarik, bat-batean desagertu egingo zaio senarra, apustuzale amorratua, eta dirurik gabe utziko, haurrekin bakarrik. Hura bilatu nahian dabilen bitartean, Lila Littlewolf ezagutuko du, neska indiar mohawk bat, zeinek dirua irabazteko modu bat proposatuko baitio. Arriskutsua da plana: legez lanpoko etorkinak pasatzea Kanadatik Estatu Batuetara, Saint Lawrence ibai izoztuan barrena. Mugetako patruilek zaintzen dituzte ibai-bazterrak. Eskaintza onartzera eramango du Ray desesperazioak.

- **urtarrilaren 31n: *Hotel Cambridge, Elianne Caffe. Brasil – Frantzia (2016). 100'.*** Sao Paulo hiriaren erdian abandonatuta dagoen eraikin bat okupatzen duten aterperik gabeko eta errefuxiatuen ezohiko egoera erakusten duen filma. Kaleratuak izateko beldurak egunez egun sortzen duen tentsioak agerian utziko ditu okupatzaileen dramak, poztasunak eta ikuspuntu desberdinak.

Montehermoso, en colaboración con CEAR-Euskadi, presenta el ciclo de cine “Babesik Gabe / Sin Refugio”

Las sesiones tendrán lugar del 10 al 31 de enero todos los martes a las 19:00 horas.

En el marco del proyecto “Babesik Gabe / Sin Refugio” seleccionado dentro de la convocatoria pública “*Derechos Humanos y Creación Artística 2016*”, realizada conjuntamente por el Centro Cultural Montehermoso dependiente del Servicio de Cultura y por el Servicio de Cooperación al Desarrollo del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, Montehermoso, en colaboración con CEAR-Euskadi, presenta este ciclo de cine.

La entrada será libre hasta completar aforo, y todas las proyecciones, que están destinadas a un público mayor de 14 años, serán en versión original con subtítulos.

El ciclo reúne cuatro películas seleccionadas por CEAR-Euskadi, cuya proyección será acompañada de un coloquio en torno a la situación actual de las personas refugiadas.

Las fechas y películas son las siguientes:

- **10 de enero: La vida secreta de las palabras, Isabel Coixet. España, 2005. 120'.** Un lugar aislado en medio del mar: una plataforma petrolífera donde sólo trabajan hombres y en la que ha ocurrido un misterioso accidente. Una mujer solitaria y silenciosa (Sarah Polley) es llevada a la plataforma para cuidar de un hombre (Tim Robbins) que se ha quedado ciego temporalmente. Entre ellos va creciendo una extraña intimidad, un vínculo lleno de secretos, verdades, mentiras, humor y dolor, del que ninguno de los dos va a salir indemne. Una película sobre el peso del pasado, sobre las relaciones humanas y sobre la capacidad de las personas para sobreponerse a la violencia.
- **17 de enero: In this World, Michael Winterbottom. Reino Unido, 2002. 88'.** Enayat y Jamal, dos jóvenes afganos que viven en un campo de refugiados de Peshawar, sueñan con irse a vivir a Gran Bretaña. Pero el viaje que emprenden a Londres estará lleno de dificultades, puesto que, antes de llegar a su destino, tendrán que atravesar Irán, Turquía, Italia y Francia.
- **24 de enero: Frozen River, Courtney Hunt. Estados Unidos, 2008. 97'.** Cuando Ray Eddy está a punto de comprar la casa de sus sueños, de repente su marido, un adicto a las apuestas, desaparece y la deja sin el dinero y sola con los niños. Mientras trata de encontrarlo, conoce a Lila Littlewolf, una chica india mohawk que le propone una manera de ganar dinero. El plan es arriesgado: pasar ilegalmente inmigrantes de Canadá a Estados Unidos a través del helado río Saint Lawrence, cuyas orillas están custodiadas por patrullas fronterizas. La desesperación lleva a Ray a aceptar la oferta.
- **31 de enero: Hotel Cambridge, Elianne Caffe.Brasil-Francia, 2016. 100'.** Una película que nos muestra la atípica situación del movimiento brasileño de los sin techo y los refugiados que ocupan un edificio abandonado en el centro de Sao Paulo. La



montehermoso



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

tensión diaria provocada por la amenaza de desahucio revela los dramas, las alegrías y los diferentes puntos de vista de los ocupas.